

18 zka 1994.eko ekaina

EGASTEIZ



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27

ARABA EUSKARAZ



NON ETA MUGAN



Arabian aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskatu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



Arabako
Foru Aldundia

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Ekainak 19
ARABA EUSKARAZ
13. orrialdea



Euskal Espedizioa K2
mendira,
20 orrialdea



AMETS taldearen
itzulia.
8. orrialdea.

kirolak, denborapasak,
erreportaiak...

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



HORRELAXE, ortografia horrekintxe definitu zuten Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen goiburua duela berrehun urte. Xabier Maria de Munibe Peñafloidako Kondea eta bere Herriaren Adiskideen ekimenari esker Azkoitian sortu zeneko sentimentu berberaz ahalegintzen gara gu ere, gure inguruan eta geure mugekin, Elkarte honi eusten. «Azkoitiko Zalduntxoak», halako izenarekin heldu baitzaizkigu gaurdaino, pisu handiko lagunak izan ziren Euskal Herrian ekonomia eta gizarte mailan zuten egoera abantailatsuari esker. Beren adiskide gehientsuenen gisan bizimodu lasai eta batere kezkarik gabea izateko aukera eduki zuten, baina, izan ere, beren kultur mailagatik gizartearen gailurrean zeudenez, ongi asko jabetu ziren Euskal Herriak, beren Nazio maiteak, halaxe definitua baitute lehengo Estatutuetan, beren baliabide eta indar guztien beharra zeukala ezjakintasun-egoera gainditu eta aurrera egin ahal izateko. Halaxe hasi zen aro berri bat, eta aro berri horixe izan zen oinarria Euskal Herria eta bere industria, kultura, nekazaritza eta abelzaintza gizarte modernorantz abiatuta eraikitzeak.

YRURAC BAT, hirurak bat eginda. Nafarropa ere hainbat adar, eta ez nolanaikoak, hedaturik izan arren, ez zuten nahikoa babes eskuratu beren goiburua indartu eta errealitateari hurbilagotuz «Laurak bat» bilakarazteko. Elkarteak hainbat alorretan jardun zuen, hala nola irakaskuntzan (Bergarako Seminario edo Eskola, non Eurapako kimikari eta matematikari garrantzitsuenek eman baitzituzten eskolak, Gasteizko andereñoendako Eskola hasberria) industrian, nekazaritzan (patata-hazkuntza, ardoa zaindu eta ontzea...), kulturen (musika, poesia, literatur sorkuntzekiko babesa...) eta, hitz batean esanda, aurrerapena eta heziketa zekarren

YRURAC BAT



ezein alorretan.

Gaur egun, eta gure Arabako Batzordeari mugatuz gero —nahiz eta horretara mugatzea zail den, zeren Elkarte osoa egitura bakar gisa baitabil—, ez dugu hainbesteko baliabiderik (ez ekonomikorik, ez denborazkorik, ez eta agintezkorik ere). Esan dezakegu, alabaina, arabar talde bat garelako, zeinak, geure instituzioen laguntzarekin, gogobetez ekiten dion gure Lurraldea aurrerabidean jartzen duen zernahiri. Geure fundatzaileek hasitako bideari jarraikiz, gure lana bitan banatzen da: alde batetik, gure Adiskide taldean Herriaren-ganako halako kezka edo ardura bat sortzen saiatzen gara, gero kezka eta ardura horiek nork bere eremu profesionalera eraman ditzan. Hala, medikuak osasun-bokaziodun gisan lan egingo du eta bere lana Herriaren Adiskide batena izango da, irakasleak bere jakintza gazteei ezagutaraziz handitu egingo die beren kultur maila, edozein Herri handi egiten duen oinarria bera... Bestetik, hainbat programa garatzen ditugu, unean-unean agintzaritzek nolabait ere behar adinako jaramonik eskaintzen ez dien kezka edo beharrezko aztertzeak. Programa horietakoak ditugu, gazteentzako arte-lehiaketak, Jardunaldiak, gaur egungo gaietako buruzko mahai-inguruak, geure Bazkideen heziketarako mintzaldiak, bai eta pisu handiagoko beste batzuk ere, hala nola «Euskadi 93.eko Europan», zeinari esker Estatuko eta Europako itzal handiko jendea etorri baitzitzaigun Gasteiza. Jardunaldi haietan, gure herriaren eta gainerakoen egoera aztertu zuten, berebiziko garrantzia duten gai hauei dagokienez: «Zahartzaroko arazoak». «Kirola», «Nekazal produktuen industrializazio eta merkaturatzea», «Osasun alorreko profesionalen egoera»

Bi hitzetan esanda, gaur egun ere, Herriaren Adiskide izatea dugu helburu.

Miren Sanchez Erauskin

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak
Arabako Batzordeburua

GEU **GASTEIZ**

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri
Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo
Hizkuntz egokitzaila: Inaxio Lopez de Arana
Komikia: Iñigo Sarasola **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakek Peña, Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Jon Onaindia
Kolaboratzaileak: Txipi Ormaetxea

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

“ San Juan, San Juan, nekez etorri eta bizkar joan ”

“ San Juan Eguna, argitu orduko iluna ”

BERTSOAK



PABLO PAGEGI

ARABA EUSKARAZ bi ikuspegi

DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi

I

Gaztelaren zartadaz
da ikararen ikaraz
egunak joan eta etorri
ez gaude patxadaz
geroaren begiradaz
ziruta dezagun beraz
egiko lema bihurtu dadin
Araba euskaraz

II

Ezabatu ikastola
Gora Pantoja eta Lola!
Euskaltzaleek sartu nahi dute
euren alde gola
patateroen odola
euskararik ez inola
Alava España dugunez gero
Alava española



1691
Postakutxa
GASTEIZ



Dohainezko iragarkien saila
jarri nahi du martxan GEU
aldizkariak euskaldunen
arteko salerosketak,
trukaketak eta bestelako
harremanak errezteko. Beraz,
badakizu, zerbait saldu, erosi,
trukatu, eskeini, eskatu... nahi
baduzu deitu geure telefonora
(26 25 92) edo gure
postakutxatilara bidali (1691)
zure iragarkia



Euskara Ba(n)tuaz

Mendizorrotza futbol zelaia kanpo
aldean ateratako argazkia duzue ondokoa.
Baten batek Legebiltzarra eta futbol-zelaia
nahastu samar ditu. Egia esan, garai
honetan dauden iskanbilak ikusita, ez
zegoen oso oker kartela jarri zuena,
alajaina. Noiz arte horrelakorik ikusi
behar?

OHARRA

Zure etxera GEU aldizkari bat
baino gehiago iristen bada,
hala jakinarazi iezaguzu
telefonoz (26 25 92) edo gure
postakutxara (1691) oharra
bidaliz

«IMA» KANPINERAKO ERREMOLKEA

- Inertzia-galgaz
- 3 gela
- Parrila eta arkoia
- Ia berria
- Abatiblea

Tfnoa: 26 76 98

(goizeko 10etatik gaueko 8etara)

KANGEUROAK

(ume euskaldunak zaintzeko begiraleak)
behar ditugu

☎ 26 25 92

Ume euskaldunak zaintzeko
prest nago

☎ 26 25 92



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55

01005 - GASTEIZ

Zerutik lurrera begira



Izan ere, nere lehen artikuluan eklipsearen ziklotasunari buruz proposatu nizuen azterketatxoia egin bazenuten (1910-11, 1920, 1928-29-30, 1947-48-49, 1957, 1966-67, 1975-76, 1985, 1994-95) gertakizun erabakiorrak topatuko zenituzten: aurreneko guda arabiar-israeldarrak erdialdean (petrolio-prezioaren igoera), Koreako gerla, Franco, Carrero Blanco eta Opus Deiko sortzailearen (Balaguer) heriotza, eta Iran ta Iraken arteko gerla (petrolio-krisia), besteak beste. Une kritikoak beti ere, baina eboluziorako bide eman zutenak.

OSKARBI behar genuen maiatzaren 10eko ilunabarrean eguzki-eklipsea ikusi ahal izateko eta, zorionez, Araban behintzat, zeru garbia nagusitu zen eta aukera izan genuen gertakizunaren ikusgarritasunaz gozatzeko. Eklipsearen eragina aitzitik, ez da horren lasaia izango.

Oraingo eklipseak indarrean dauden joerak areagotuko ditu. Esaterako, Alemaniaren nagusi-tasun ekonomikoa gero eta ge-hiago nabarmenduko da, Europako Ekonomi Elkartetik urrunduz eta iparral-deko herriekin elkartuz. Horrek guztiak ekonomiaren desoreka ekarriko du eta baliteke horren ondorioz ekainaren

10etik aurrera dolarrak eta Estatu Batuetako burtsak behera egitea.

Bestaldetik, neofaxismoak aurrera egingo duen arren, ekainaren 5etik 10era birmoldaketak izan daitezke Italiako gobernuan eta, hitzarmenak gorabehera, ministro neofaxistak agintetik kanpo gera daitezke.

Espainiako estatuan maiatzaren 25-30 bitarteanatentatzen bat izan daiteke Bartzelonan. Ustelkeriaren kontua oraingoz geratu egingo da.

Europako hauteskundeetan badirudi pastela nahiko banatuko dela eta PSOE eta PPren emaitzak gero eta parekatuagoak izango badira ere, gehixeago itxaron beharko dugu PSOEn erabateko porrota ikusteko.

Balkanetan, kroaziarrek eta musulmanek bat egin eta "korridore serbiarra" itoaraziko dute Brcko-ko hegoaldean, Serbiak gudan bereganatutako lurralde asko galduz eta Kroaziak Krajina eskuratuz. Aurreko zenbakian esan bezala, serbiarrek ez badute amorerik ematen NATOk eraso egingo die.

Esandakoaz gain eta aurreko hilabetekin konparatu ezkerro lasaia dator-kigu hilea.

Iñaki Gauna

PACK GAZTEA

Orain jantzi ditzakezu 6 hilabetetako Multilens lente botatzekoak, Ixurkari Bakarreko bi ontzi eta kutxatila, zoratzeko prezioan. Eta gainean, Folding izeneko Ray Banak jarriko dituzu kitorik. Hori guztia, Mendia Optikak eskaintzen dizkizun zerbitzuaz eta garantiaz, jakina.



Eskaintza honek betaurrekoak ahitu arte balio du

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
Gasteiz

Errota Zaharreko Auzokideen Elkarteak jai berriko haurra dugu, bere lehenengo udaberria ez baitu oraindik ere bete. Halere, bere kideak bertan errotuak dira, eta auzoan egindako hamarkadek eman dieten harrotasuna darabilte euren zainetan. Bere presidenteak, Jose Antonio Tielvek lagunduko digu Errota Zaharra auzoko keka eta pozbiziak zuenganatzen.

Asier Perez de Karkamo



Auzorik auzo: ERROTA ZAHARRA

GEU GASTEIZ: Normala al da hainbeste urte dituen auzo batean auzokideen elkarerik ez egotea?

JOSE ANTONIO TIELVE: Egon bazegen lehen, baina desagertu egin zen. Edo zein modutan, duela bi urte droga trafikoa aurka lan egiteko bildu ginen auzokide batzu, eta bertan, ekinbidea beste arloetara luzatzeko beharra somatu genuen; horrela sortu zen elkarteak, duela hamar bat hilabete.

G.G.: Ez al da gutxi urte bat?

J.A.T.: Bai, oso denbora gutxi da, batez ere auzokideen interesik eza kontuan hartuz. Baina lan egiten dugunok oso gustora botatzen dugu gure izerdia honetan, nahiz eta askotan ezer gutxi lortu. Oso lagunartekoa majua bildu gara hemen.

G.G.: Nolako harremanak izan dituzue Udalarekin arestian aipatu dituzun ekimenak aurrera eramateko?

J.A.T.: Ongizate Sozialeko Sailak asko lagundu digu beti. Benetan ezin gara kezatu. Beste arlo batzuetan, ordea, adarra

jo digutela uste dugu, hara nola, trafikoa, drogomenpekotasunak, osasun etxea...

G.G.: Zein da ba zuen kekarik nagusiena?

J.A.T.: Hainbeste dugu oso zaila egiten baitzait bakarria aipatzea. Baina agian trafiko eta osasun etxearenak izango dira nabarmenenak. Batetik, irtenbide baten eske gabiltza Koronazio eta Eulogio Serdan kaleak elkartzeko dituen bidegurutzerako. Bertan jada, bi pertsona hil dira. Eta bestetik, osasun zentruaren hutsak ere askotan salatu ditugu. Jakingo duzunez, kuarter etxearen birmoldaketaren ondorena da egungo anbulategia, eta gauza asko ez dira bertan batere ondo egokitu. Arazo bi hauek konpontzen badira, momentuz pozik geratuko ginatke.

G.G.: Gure aldetik beste arazo bat ikusten dugu, ez bakarrik zuen auzoan, baizik eta Gasteizko gainontzekoetan ere. Baina, agian, hain inmigrante kopuru handia egonda, Errota Zaharrean areagoua ikus daiteke. Zein

da bertan euskararen osasuna?

J.A.T.: Ez da oso ona, baina nik azpimarratu nahiko nuke ikastoletan matrikultatutako haurren portzentaia oso altua dela; gure Alde Zaharra ikastolan baino gehiago Gasteizko gainerako ikastoletan ematen dute izena gure neska-mutilek. Gure aldetik, Auzokideen Elkarteak ekitaldietan euskara sartzen saiatzen gara, nahiz eta kontrako erantzunak ere jasotzen ditugun. Adibide gisa, aurreko urtean antolaturiko jaietan hiru musika talde ekarri genituen, eta hirurek, Bizkar Hezurra, Bap eta E.H. Sukarra taldeak, euskaraz kantatzen dute.

G.G.: Gogoratzen ditugu bai, eta oso oroitzan onez gainera, jai haiek. Aurten ere horrelakoak nahiko genituzke. Ba al liteke?

J.A.T.: Ez dugu uste. Izan ere, oso laguntza txikia jaso genuen auzokideen aldetik. Gainera, egun badirudi jaiak kontzertu batera mugatu behar direla, eta hori jende helduari ez zaio batere gustatzen.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**

Telefona: 23 17 13

ATZOKO ARABAKO FORU ALDUNDIA

BA AL ZENEKIEN ?


*...Mateo Benigno de Moraza
(1861-1878) ezaguna dela
Espainako korteeetan Foruen
defentsagatik?*

*...bere estatua azpian,
1876an egin zuen
diskurtsoaren zati bat
agertzen dela?*

*... hitz horiek honela diotela:
Defendatu dugun kausa,
arrazoia, historia,
zuzentasuna eta gizadiarena
izan da eta izango da.*

*... Aurretik, 14 urtez,
idazkaria izana zela
Gasteizko Udaletxean?*

GOGORATZEN al duzue Telebista agertu ohi zen lehiaketa bat? Bertan argazki trukatu bat erakutsi eta zer du soberan, zer faltan? erantzun behar zen. Ez pentsa gaurko argazkia bertatik atera dugunik. Bai zera! Gaur egun eskuinaldean ikus dezakezuen estatua -Mateo Benigno de Morazarena- garai horietan aurre-aurrean zegoen. Eraikina -Neoklasiko estilokoa-, bestalde, 1.833. urtean hasi ziren egiten. Hasiera batean solairu bakarra zeukan, bigarrena 1.855 erantsi ziotelarik.



BIZTANLEAK:

16.870

LANBIDEAK:

Langile xeheak, batz besteko adin nagusikoak eta neurri handi batean emigranteak.

HISTORIA:

Aldabe Ataritik hasita, 50-60 hamarkadetan izan zuten zabalkunderik nabarmenena. Santo Domingo Plazan zegoen ur errota batek eman zion auzoari oraingo izena.

BERDEGUNEAK:

Zaldiaran, Andagoia, Santo Domingo eta Kutxa enparantzak.

MONUMENTUAK:

Koronazio elizako gurutzea

TALDEAK:

Batetik parrokian errotutakoak:

Ekintza katolikoko mugimendu juniorra
Gazte kristauen asanblada
Goizeder katekesi taldea
Karitak

Bestelakoak:

Alkoholzaleen familiakideen taldea
Drogomenpekotasunen aurkako batzordea
Langabetuen Asanblada



Benito Ginea

liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ



azkarprint

Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

AMETS taldea:

luzaroko lozorrotik iratzarria lehengo garai ederrei adio egiteko



raganeko garaiak hobeak izaten omen dira beti. Zenbatetan entzun behar izan ote ditugu gazteok 60ko hamarkada ia mitiko horretako kontuak? "Orain dela... 25 urte" du izena Amets taldeak kaleratu berri duen diskak. Orduko oroitzapenak ekarriko dizkio bati baino gehiagori. Taldea kantatzen hasi zenetik 25. urteurrena betetzen den honetan, diska grabatu eta kantaldia eman dute luzaro ixilik izan ondoren. Gainera, horrela eman digute azken agurra, beraiek adierazi digutenez. Ate bat ixten da Arabako garai jakin bateko kantu tradizionalaren historian Amets taldearen desagerpenarekin batera.

Leire Lopez de Aberasturi

IAZ ELKARTU ZEN berriro Amets taldea dozena bat urtez musikaren mundua zokoraturik izan eta gero. Elkartzeko aitzakia Araba Abesbatzaren 25. urteurrena izan zen. Ekainean Araba-k eta Amets taldeak kontzertua egin zuten. Gerora, ez zuten ezetzirik esan Gasteizko jaietan jotzeko aukera eskeini zitetenean kantak zegoeneko entsaiaturik zituztelako. Diska grabatzeko proposamena Enrike Ruiz de Gordoaren ahotik etorri zen, Matxete enparantzako kantaldi horren ondoren, hain zuzen. Gainerako taldekideek ez zioten jaramon handirik egin; Enrikek ez zuen amore eman, halere. Horrela, iazko azaroan Gaspar Ruiz de Gordo, Elias Fernando Lopez de Luzuriaga, Juanjo Leza, Juanjo Mena, Jose Hidalgo eta Miguel Angel Martinez berriro biltzea lortu zuen bere taldekide ohiak konbentzitu asmoz. Abendurako maketa gina zegoen.



Adurtza auzoko jaialdi batean ateratako aintzinako argazkia

“**Enrike Ruiz de Gordoaren ekimenez eratu da taldea berriro**”

“Orain dela... 25 urte” izeneko diska 12 abestik osatzen dute. Horietariko gehienak aspaldikoak dira: “Amets”, “Aberri”, “Entzule maite”, “Gure Araba”... Diskak, ordea, “Orain dela...” kanta du aurrenekoa. “Gaur egun pentsatzen dugunaren adierazle argia da kanta hori”, agertzen dute Ametsekoek diskan bertan. “Nahiz mila orbel erori diren Florida aldeko

parkean / gure barruko lehengo ideiak ez gaitu utzi pakean / arnasaldi bat hartu ondoren berriz gatoz atakean / zahar-tzaroaren atean baina sasoi betean / garai hartako lagunak berriz kantuan gatoz batean / ametsik ez da sekula galtzen lortzen ez den bitartean”, dio Andoni Egañaren letra eta J. I. Ansorenaren musika duen abestiak. Enrike Ruiz de Gordoak berak sortu ditu gainontzeko kantarik gehienak. Horiek ez ezik, bi abesti herrikoi eta Bob Dylan eta Raimon-en abesti ezagun batzuen kanta moldatuak aurki daitezke diskan. “Gehienetan Gasteizko musikariek lan egiten genuen, Sabin Salaberri eta Luis Aranburu, besteak

beste”, azaldu dute Amets taldeko musikariek.

Diska aurkezteko kontzertua apirilaren 24ean izan zen Principal antzokian. Duela 13 bat urte bertan behera utzi zen taldea. Geroztik oso ekitaldi gutxi izan dute. Horregatik ez da batere harrigarria “oso urduri egon ginen” aitortpena. Emanaldiak zantzu gogoangarria utzi die Ametsekoek: “Jendeak parte hartu zuen kontzertuan abestiak ezagutzen zituelako. Oso polita izan bazen ere gu ez ginen horretaz erabat jabetu, geroago bideoan ekitaldia osorik ikusi genuen arte”. Kontzertuaren egunean taldekide izandako lagun guztiak ekarri



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:
1994-95 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

Informazioa:
 IRAKASLE ESKOLA
 Tel: 943/714157
 20540 ESKORATZA
 (Gipuzkoa)

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza musikala

zituzten gogora, hala nola, Xeberri, Sabin Salaberri, Javi Galdos, Txus Vitoria, Eduardo Lopez de Alda eta Javi Sarasua.

Euskararen aldeko konpromezua

“Leku askotan jo arren ez zuten sekula sosik ere ikusten”

Emanaldi polita izan zen eta taldekoak oso gustora geratu ziren. Baina hori ez da sortzen gauetik egunera, gogor lan egin ondoren baizik. Gaspar Ruiz de Gordoak honela azaldu digu: “Ez genuen partituren laguntzaz jotzerik, partiturarik ere ez genuelako. Bakoitzak bereak egin behar izan ditu. Izugarritzko lana, beraz”. Horretaz gain, denbora luzez jo gabe egon dira gasteiztarrek. Ondorioz, ez gara harritu “entrenamendu” falta zutela esan digutenean. “Nik ez nuen kitarra hartu taldea utzi genuenetik” eta “maskurrak ere atara zaizkigu” moduko esaldiak entzun ditugu musikarien ahotik ahapekako barreen artean.

Hiru diska grabatu zituen Amets taldeak 1968tik 1981ra bitartean eta oraintsu kaleratutakoak “editaturik ez genuen zentzua baita grabatzeko bidea eman du”. Mila diska baino ez dituzte plazaratu eta Carrion musika dendan dira salgai.

Euskal kantu tradizionala landu du taldeak. Garai horretan euskaraz kantatzeko erabakia konpromezu politikoren eskutik zetorren. “Oso garai zailak ziren eta guk egiten genuen musika motak arazoak sortu zizkigun”. Euskal Herriak bizi zuen egoera sozio-politiko zela eta, orduko kontzertuak oso bereziak ziren: “Giroa erabat hunkigarria zen”.

Kantaldi horiek eratzea ez zen nolanhiko lana. “Abesti guztiak “Información y Turismo” delakoan aurkeztu behar ziren zentsura zela eta ez zela. Batzuetan kantaren batzuk debekatzen zizkiguten”. Debekuak betetzen zituen Ametsek: “baimenik gabeko kanta horiek guk ez genituen abesten baina guk musika jo eta jendeak kantatzen zituen gure orde”. Agindua betetzen zela bermatzeko polizia sekretak ere izaten ziren musika-ekitaldietan eta orduan ere nahikoa erreza izaten zen beren presentzia ohartzeara. “Noizbait beraiekin hitz egin eta “ez dakit zertarako bidaltzen gaituzten, ez dugu ezer

ulertzen eta!” esaten zuten”, gogoratu dute Ametsekoek.

Beste zentsura mota bat ere ezagutu zuten gasteiztarrek, aurrekoa baino are gogorragoa: “Musika tresnak lapurtu zizkiguten, ez genuen jakin nor izan zen baina...” Hala ere, “ezin da esan arazo larri-larririk izan genuenik, euskaraz kantatzeak eta letren edukiak ekarri zizkiguten zailtasunak gora behera”.

Zentsurak zentsura eta zailtasunak zailtasun, plaza askotan jo zuten gasteiztarrek. “Baita “telonero” bezala ere”. Gisa horretan ibili ziren Mucedades, Estitxu edota Itoiz talde motrikuarrarekin. “Ikustekoa zen beraien ekipoa eta gurearen arteko aldea”, esan digute Ametsekoek.

Askotxo ibili arren ez zuten sekula sosik ere ikusten, “gehienetan musutruk jotzen genuen eta!”. Horrela jarraitu dute orain arte eta diska berria egiteko ere oso diru gutxi behar izan dute. “Teknikarien arabera, guk diska egiten gastatzen duguna beste batzuek coca coletan xahutzen dute”. Gainera, salneurria merkeagotzeko, beraiek sartu dituzte diskak kutxetan eta jarri bakoitzari zegokion papera. “Eskerrak 1000 baino ez diren izan!”.



Aspaldiko musika-ekitaldi bat

Alavesa ahotik ahora

URTERO BEZALA, aurten ere, ligaren amaierarekin batera play-off izeneko futbol lehiaketa etorri zaigu. Mendizorrotzara igandero joaten diren zaletuentzat hauek baino une garrantzitsuagorik ez dago denboraldi osoan zehar. Egunotan futbolzaleok hamaika galdera egiten dizkiogu geure buruari. Horietako biren inguruan hausnartzen jarri ditugu zenbait gasteiztar.

1. Bigarren mailan dauden taldeek igotzeko play-off-a jokatu behar dute. Zer iruditzen zaizu hori ?

2. Azken bolada honetan Taugres taldea modan dagoen arren, Alaves futbol taldeak zaletu gehiago duela uste al duzu ?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi"



INKESTA KALEA MINTZO



CARLOS GARCIA
Abokatua



TERE RUIZ IBISATE
Funtzionarioa

1. Play-off-a ez dago gaizki. Dena dela, taldean taldeko txapeldunak abantailaren bat izan beharko lukeela uste dut. Esaterako liga bukatzerakoan, lehenengo tokia erdietsi duenari 3 puntu eman, bigarrenari 2 puntu...

2. Jakina, Alaves taldea bigarren B mailan jokatzeko ari bada ere, 5.000 pertsona inguru joaten dira igandero ikustera.

1. Oso gaizki. Lehenengo postua eskuratzen duenak igo behar du tarteko biderik urratu gabe, bere erregularitatea dela medio..

2. Orokorrean esanda, Alavesaren eta Taugres taldearen ikusle eta jarraitzaileen artean ez dago desberdintasunik, jende berbera baita.



CRISTINA IBISATE
Ikaslea



MANOLO LOPEZ BRAVO
Tabernaria



RAKEL SAENZ
Ikaslea



PAKI GARCIA MATIAS
Udaletxeko langilea

1. Gaizki, ez zait zuzena iruditzen. Neurri horren bidez, futbola bultzatu baino, dirua nola edo hala eskuratu nahi dutela uste dut.

2. Ez, jende asko joaten da Taugres taldea ikustera. Alavesa igoko balitz, gauzak dextente aldatuko lirarteke

1. Ez nago ados horrekin. Lehenengoak beti igo behar du. Bigarrenak, ordea, play-off-a jokatzeko behar izango balu, ez litzaidake gaizki irudituko.

2. Egia esanda, Alavesak askoz zaletu gehiago du. Taugresen kontua moda hutsa da, nire ustez.

1. Ez da zuzena. Horrela aukera gutxiago izaten da.

2. Ez, ez dut uste. Orain Taugresen ospe handia hartu du eta gainera, gehiegi kostatzen ari zaio Alavesari igotzea.

1. Ez zait zuzena iruditzen. Ligan talde guztiak elkarren lehiari aritzen direnez, amaieran puntu gehien lortzen duenak igo beharko luke.

2. Taugresen zaletu gehiago du. Hori normala da diruz hobeto dabil punta-puntako jokalariek erosteko



izozkiak



GUREA

jatetxea

Konstituzio Eparantza, 10
Telefona: 24 59 33

Mertxe Lozano

ORRIALDE HONETAN, hilabetero agertzen den pertsonaia, oso berezia da guretzat. Bera da aldizkari honen helburua: Gasteizko euskaldun bat, edozein, zu zeu ere izan zaitezke.



G. Malagakoa ala Gasteizkoa. Nongoa zaitugu?

E. Zaila da. Zaila da ja. Mundukoa naiz. Malagan ditut sustraiak baina...

G. Nola moldatzen da Malagako neska motza euskaldunekin?

E. Oso ondo. Hamabost urte eta gero... oso ondo.

G. Zer da guztiz gorroto duzuna?

E. Hipokresia.

G. Duzun biziorik handiena?

E. Bonboiak eta pastelak.

G. Bertutea?

E. Diskrezioa.

G. Famatu adiskide baten izena?

E. Jorge Oteiza. Tipo ona da.

G. Zer eskatzen diozu bizitzari?

E. Nik ere ez dakit. Igual, elkartasun handiagoa. Eskatzen diodana, eskaintzen diodanaren pare dago. Idealista naiz, dudarik gabe; etengabe jasotzen dut egurra batetik eta bestetik.

G. Jeniorik bai?

E. Bai; ez du ematen baina badaukat. Igual ez dut ateratzen, eta barruan daukat. Eta gero, hura burukomina! Etxean ateratzen dut beharbada. Ezagutzen ez diozuenari zertarako ezer esan? Ez zaitu ulertuko eta!

G. Momentuko kezkarik handiena?

E. Liburudenda izan da beti. 'Ondo ote dabil?'. Eta ondo badabil, hobeto nahi...

G. Egunkari bat?

E. Nik irakurri, normalean, 'Egin'.

G. Telebistarik?

E. Bai, 'Doctor Livingstone, supongo'.

G. Zurekin seguru asmatzeko erregalia...

E. Musika eta liburu bat. Besterik ez du merezi. Nobela ona, edo filosofiazko obra, edo pentsamenduzkoa, edo emakumeari buruzkoa... Musika, kontenidua duena.

G. Jantzekoari asko erreparatzen?

E. Ez. Nire lankide Xabik baino gutxiago. Berak bai. Presumitua da.

G. Dantzari ona ote zaitugu?

E. Euskal dantzak ikastea gelditzen zait oraindik. Tangoa, pasodoblea eta beste dantza batzuk egiten dakit; edo nekien. Malagako dantza zaharrak ere bai. "Berdiales", arabeen garaiko dantza; eta "malagueñak" ere bai.

G. Oporrak non eta zertarako?

E. Normalean Andaluzian. Oroitzapenak berriz bizitzeko. Nafarroako Genevillako etxean ere bai. Nafarroa da, niretzat, Euskal Herriko lurralde hoberena.

G. Non ikasi zenuen euskaraz?

E. AEK zaharrean, San Antonio kalean... IKA ez nuen harrapatu. Utzi nuen; eta sentitzen dut, indioak bezala hitzegiten dut eta. Irakasle onak izan nituen. Batzuek pedagogiaz onak, beste batzuk tipo interesgarriak: ez zekitena epineoarekin kitatzen zuten.

Gu bezala, ikasleak bezala.

G. Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

E. Idealista naiz, ez dut injustizia jasaten. Oraintxe, gehiegi da injustizia. Leptik heldu eta edozein itoko nuke... Baina hitzak baino ez dira; gero ezer ez...

G. Jaki goxoren bat.

E. Piper beteak; arrainez.

G. Filmerik?

E. Atzo ikusi nuen "Fresa y chocolate". Cubakoa. Baina nire ustez, filmea da "Cinema Paradiso".

G. Aktore izenik?

E. Humprey Bogart eta Katherine Hepburn.

G. Txikitako oroitzapen ederren bat.

E. Beharbada hondartzara joan nintzen lehenengo aldiz. Nire herria mendian dago; Cutar. Eskolako eskursioa izan zen, guraso eta guzti. "Herria hondartzara doa" izan zen. Frankismoaren leloetarik bat... Autobusez. Inmensidadea izan zen guretzat.

G. Gorputz atalik politena?

E. Beharbada begiak.

G. Ametsik?

E. Baserrian bizitzea; mendian. Behi eta ardirik gabe, e! Artesau lanak eginez. Loreak zaindu, egurra landu...

G. Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

E. Dena. Errotik hasiko

1.956an jaio zen, irailaren 24ean. "La Merçe" eguna Katalunian-. Libra da. Berak irakurri baino, semeek irakurtzen diote horoskopoa, barre algaratean edo.

Malagan sortu zen, Andaluzian. Barne aldeko Cutar herri txikian bizi izan zen 12 urte arte. Gero, estudioak medio, hiribururá mudatu zen. Delineatzaile ikasi zuen. Malagan ditu senideak. Oporretan baino ez da hara joaten.

Duela 17 bat urte etorri zen Gasteiza, abenturaren kalenturak tiratuta, nonbait.

Gasteiza etorri eta urte betez lantegi batean jardun zuen; delineatzaile lanean. Geroztik, Herrikoia liburudendan ari da.

Santi du bizilagun, eta Ibai eta Ander, semeak. 13 eta 9 urte dute, hurrenez hurren.

Liburuaren egun batez endredatu zen Santirekin.

Mendira joatea du afizio, fondoko eskia, zinera joatea... "baina denbora gutxi daukat; liburudendak ordu asko kentzen dizkizu". Barazkigintza ere du zaletasun handia.

Ez du berehalakoan ahantziko Gasteiza heldu zen sasoi. 1.977ko Aberri Eguna. Estraineko aldiz ikusi zuen elurra. Elurra eta egurra, biak izan ziren egun hartan.

nintzateke. Oraintxe, Ipar-Hego arteko desberdintasunetik hasiko nintzateke: herri kapitalistak eta herri pobreen arteko diferentziatik.

Miel Anjel Elustondo

Non eta mugan

ARABA EUSKARAZ



Hilaren 19-an Lapuebla de Labarkako herria ezinbesteko topagune bihurtuko da euskaltzale guztiontzat. Aurtengo "Araba Euskaraz" ekitaldia Errioxako herri horretan egiteko arrazoi ugari daude. Zergaiti horietaz galdetzeko eta jai honetako azken prestakizunak bertan ikusi ahal izateko Lapuebla de Labarkaraino joan gara.

Olatz Irizar

Ibaia eta mahatsak



Leloaren azalpena:

Eskualde hau Arabako **MUGAN** kokatzen da, Euskal Herriko Mugan. Hori dela eta, hitz hori leloaren oinarria da.

Arabar Errioxan euskera eta ikastolen aldeko mugimendua bizirik dagoela erakutsi nahi du **NON** horrek. Egun horretatik aurrera Non hitza betiko galduko da, euskaltzale guztiak ezagutuko dutelako eskualde horren errealitatea.

Logotipoaren azalpena:

Mahastiak: arabar Errioxaren adierazgarririk ezagunenak direlako.

Ibaia: Ebro ibaiak leloan zehar aipatutako muga hori fisikoki gauzatzen du. Ibaia ez da era geldo eta lasaian agertzen, baizik eta mugimendua isladatzen du, olatu antzeko zorroztasunekin. Mugan ere mugimendua dagoela eta mugan zerbait mugitzen dela isladatu nahi da.

EUSKAL HERRI ETA ARABA euskaldun bat aldarrikatzeko, euskaltzaleok egin izan ditugun bideak ugariak dira. Aurten euskera eta ikastolen aldeko bide horretan, Araban egin beharreko bidaia oso berezia da. Mahastiez inguratutik eta Ebro ibaiaren ertzean kokaturik dagoen Lapuebla de Labarka herriraino, Euskal Herriko mugaraino, hurbilduko gara hurrengo 19an.

Arabar Errioxako paisaien edertasunak bat egiten du hango euskaltzaleen lanaren trinkotasunarekin. Hamabost urte igaro dira ikastolen aldeko mugimendua arabar Errioxan hasi zenetik. Hamarkada eta erdi honetan zehar ikastola hauek euskera eta hezkuntza aurrerakoi eta euskal-

dunaren alde egin duten lana izugarria izan da. Denbora luze honetan traba ugariekin egin du topo mugimendu honek, baina guztiak gaindituz arabar Errioxan euskararen aldeko errealitate bat errotu dela esan daiteke. Gaur egun ikastoletan eskualde horretako ikasleen erdiak dihardu; euskaltegietan 100 ikasle baino gehiago ari dira gure hizkuntza ikasten; euskera elkarte bat ere dago eta aldizkari euskaldun bat argitaratzen da noizean behin. Beldurrik gabe esan daiteke beraz, arabar errioxarren artean euskararekiko jarrera gero eta sustraituago dagoela.

“ Arabar Errioxan ere euskara aurrera dabil ”



arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

esperantoa
denona!



Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

Errioxako ikastoleen kokapena

LAU IKASTOLA daude une honetan arabar Errioxan: Oiongo San Bizente ikastola, Bastida ikastola, Lantziegoko ikastola eta Lapuebla de Labarkako Assa ikastola. Honi Mainueta eta Eskuernaga herrietan dauden haurreskola zentruak gehitu behar zaizkio.

Gainera, erreformaren gauzatzetarako Lapuebla de Labarkan 2. Hezkuntza eta



Euskal Herri osoan aski ezagunak diren abeslari, musikari eta bertsolariak aritu dira Jon Sarasuaren hitzekin osatu den kantan. Abestia Josu Zabalak egin du, eta Zabalak ezezik beraz honakoek hartu dute parte, besteak beste: Bingen Mendizabal, "Gari", Oskorriko Bixente Martinez eta Txarli de Pablo, La Pollako Ebaristo, RIP-eko Mahoma, Tito, Txapinete eta Masa dultzaineroak, Bizkar Hezurako Triku, Xabier Amuriza, Unai Iturriaga, Igor Elortza...

"Araba Euskaraz"-eko kantarekin zinta bat atera da, eta bertan kanta honi Kontrairo taldea, Bizkar Hezurrea, Ruper Ordorika eta Gerla Betti txalapartarien kantak gehitu behar zaizkio.

Batxilergoa eta Oionen 2. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako hainbat modulo finkatu nahia azaldu dute ikastola horietako ordezkariak.

Dagoeneko eskualde honetako gazteek BBB eta UBI ikasketeei euskaraz ekiteko aukera daukate, Unibertsitatean ikasketak euskaraz burutu ahal izateko.

Administrazioaren aldetik traba ugari

Datu guzti hauek positiboak izan arren, badago baikortasun hori kolokan jartzen duen arazo bat, administrazioaren jarrera, alegia.

Ikastola hauen egitasmoa bideragarria eta egiazkoa dela egiaztatzen duten datu guzti horiek alde batera uzten ditu Hezkuntza Sailak; jaramonik ez die egiten. Horren ondorioz: arabar Errioxako zenbait herririk haurrak ikastolara joateko autobusaren subentzioa kendu zaie; Bastidako edo Lapueblako ikastolan OHOKo bi gela itxi dituzte; Lapueblako Assa ikastolan BBB ikasketak egin ahal izateko dirulaguntza errefuxatu zaie; Mainueta eta Eskuernagako haur eskola zentruak ez dute finantziatorik...

Egoera honetan arabar Errioxako ikastoletako irakasle, haur eta gurasoek zenbait ekintza egin dituzte azken hila-beteotan.

Abestia

*Mugaraino goaz
Euskararen festa
txori-kaka ezta
kalean ikastolan*

*euskararen lora
gora doa gora*

HOR KONPON ...

*badago nahiko lan
goitik erasoa
diru arazoa
makina bat traba
bueno, nahikoa da.*

*Erreza da hara:
garelako gara
gara garelako
ta nahi dugulako*

*HOR KONPON ZE ARRAIO
MUGARAINO GOAZ
HOR KONPON ZE ARRAIO
ARABA EUSKARAZ*

*Adizu adizu
orain badakizu
euskararen poza
dela Errioxa*

HOR KONPON ...

*HOR KONPON ZE ARRAIO
MUGARAINO GOAZ
ARABAN EUSKARAZ
MUGARAINO GOAZ*

*Erreza da hara:
garelako gara
gara garelako
ta nahi dugulako*

*Eginez egina
gure a(ha)legina
badator mahatsa
ardo aberatsa*

*Adizu adizu
orain badakizu
euskararen poza
dela Errioxa*

*Ebroren ertzean
denbora motzean*

HOR KONPON ...

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



EKITALDIAK

FUTBOL ZELAIA

- 10:30 TXARANGA ETA GAITEROAK
- 11:30 HERRI KIROLAK
- 13:00 ARABAR ERRIOXAKO DANTZAK
- 15:00 PAILAZOAK

eta egun osoan zehar...

UMEENTZAKO
TAILERRAK • UMEEN
JOKOAK • EUSKARAZ
BIZI PARKEAK

BU MENDIA

- 11:00 TXARANGA
- 11:30 TXALAPARTA
- 12:30 GASTEIZKO BERTSO ESKOLA
- 14:00 ERRIBERAKO JOTEROAK
- 14:30 Bertako MUSIKA ERAKUSTALDIA • Karlos Subijana
- 16:00 AGURAINGO TRIKITRILARIAK

eta egun osoan zehar...

ERAKUSKETAK

IKASTOLA

- 11:00 MIRANDAKO TXISTULARIAK
- 12:00 ARABAKO DANTZARIEN BILTZARRA
- 14:00 MIKEL MARKEZ
- 16:00 TXISTE KONTALARIAK
Gillermo Segurola eta Juanito Mendizabal
- 17:00 BITTOR AIEPE
- 18:00 EGAN

POVEDA 1

- 11:00 EZBERDINAK TXARANGA • GAITEROAK • AGURAINGO TXISTULARIAK
- 12:00 TXANBELA
- 13:00 BERTSOLARIAK:
Andoni Egaña • Xabier Amuriza • Jon Maia • Unai Iturriaga • Gerardo Meabetebarria • Rikardo Gnz de Durana • Zigor Enbeita • Jon Sarasua
- 14:30 KONTRAIRO TALDEA
- 15:00 GOLOKA
- 16:00 DULTZAINAK
- 16:30 TAPIA eta LETURIA
ESTROPADAK Ebro Ibaian
Kostape • Kaiku • San Pedro • Oria • Ondarru •

eta egun osoan zehar...

SUPER BAT
haur jolasak

POVEDA 2

- 11:00 GASTEIZKO TRIKITRILARIAK
- 12:00 TXARANGA
- 13:00 EXKIXU
- 14:30 BIZKAR HEZURRA
- 16:00 E.H. SUKARRA
- 17:30 HERTZAINAK

TARTEETAN BERTSOLARI
GAZTEAK EGONGO DIRA

... eta
zirkuitoan
zehar

TXISTULARIAK • ZANPANTZARRAK •
GAITEROAK • BASTIDAKO ARTZAIK •
ERRALDOIAK • TRIKITRILARIAK • ...

hAurRAk

MIKELEN TREBEZIAK

Mikel hamar urteko mutikoa zen. Berari betidanik gustatzen zitzaion haunditan malabarista izatea eta gau eta egun ematen zituen entrenatzen. Naranjekin egiten zuen entrenamenduan, eta egun batez esan zion bere lagun Patxiri:

—Haunditan malabarista izango naiz.

Patxik laguntza behar zuela pentsatu zuen bere ametsa betetzeko eta talde bat egin zuen herriko mutil batzuekin. Egunak joan egunak etorri, Mikel handituz joan zen. Egun batez bere gurasoek istripu bat eduki zuten eta biak hil ziren. Bera bakarrik gelditu zen etxean eta argia eta uraren zorrak ordaindu gabe zeuden. Egun batean gizon batek tinbrea jo eta Mikelek ireki eta esan zuen:

—Nor da?

—Kobratzailea naiz—erantzun zion.

—Eta zertara zatoz nire etxera?

—Argia eta uraren fakturak kobratzera nator.

—Baina nik ez daukat dirurik.

—Ba, orduan etxetik alde egin beharko duzu.

Eta halaxe izan zen; etxetik bota zuten. Orduan bere lagunekin kalean bizi izan zen, herriaren kanpo aldean zuten txabola batean. Udara pasatu ondoren, egun zoriontsu batez malabarista talde pobre bat etorri zen

herriera. Mikel lehenengo aldiz ikusi zituenean zera pentsatu zuen bere baitan:

—Hau da nire aukaera hobeto bizitzeko.

Orduan beraiengana gerturtu zen eta zein trebeak ziren ikusi zuen. Orduan galdetu zuen:

—Zuekin lan egin dezaket?

—Bai, baina erakutsi lehenago zeure trebetasunak.

Eta bere trebetasunak erakutsi zizkien malabaristei. Orduan malabaristak oso harriturik gelditu ziren eta esan zioten:

—Bai, noski, nola ezingo duzu gurekin lan egin!

Eta orduan poz-pezik bere lagunetik esan zion eta Mikelentzat izkutuko festa bat egin zioten gau hartan. Txabolara iritsi zenean entrenatzen ibili eta gero, ez zuen inor ikusi eta entzun zuen:

—Sorpresa!!!

—Baina zer da hau?

—Zuk nahi zenuena lortu duzunez, zoriondu egiten zaitugu.

—Eskerrik asko lagunak.



—Ez horregatik.

Handik aurrera oso ona izan zen asko erakutsi ziotelako. Eta gurasoak hil zitzaizkiolako, Mikel adoptatu zuten malabaristek. Eta herriz herri joan ziren eta oso ezagunak egin ziren. Kanean lortu zuten diruarekin bizimodu normala eduki zuten betirako.

Andoni Etxebarria,
10 urte

Toki-Eder ikastola

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ikUSGAR' i

t i n t a t e g i a


Alfonbrak, mantak eta edredoia, narruzko arropak, berokiak
eta lumazko arropetan espezialduak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ

Egun osorako poemak

hAurRAK

Kiku, kiku, kaikua,
lotan dago katua.
Kiku, kiku, lapurra,
lotan dago txakurra.
Kiku, kiku, ilargi:
lo daudenen zaindari.
Zaldi beltza ohostu diote
Errekaldeko ilobari.
Zaldi zuria ekarri dio
eguntsentiak opari.



Hiru arkakuso

Hiru arkakuso bildu dira
aitonaren kuadernoan
eta ipuinak idatzi dizkiote
gauetz konta ditzan.
Hiru arkakuso bildu dira
nere kuadernoan
eta poemak idatzi
dizkidate
gauetz kanta ditzadan



Gure sekretuak

Gutunak egin ditugu,
gutunak egin eta
zerura bidali,
zerura bidali eta
hodei bihurtu dira,
hodei bihurtu eta
ilargiak leituko ditu.

Haur poesía

Egun osorako
poemak eta beste

JUAN KRUZ IGERABIDE



HAURRAK txikitatik
entzuten ditu poesiak, lo-kanta
hasieran, haur kantetan
ondoren, eta beren jolasetan
azkenik.

Poesia beren errealitatetik eta
jolasetik oso hurbil dagoen
elementoa da, baina urteak
pasa ahala gero eta baztertuago
geratzen da.

Juan Kruz Igerabideren *Egun
osorako poemak eta beste*
liburu hau, poesia haurrei
hurbiltzeko tresna ezin
aproposagoa dugu.

Sentsibilitatean eta
edertasunean hezitzeko,
musikalidadean trebatzeko
liburua dugu hau.

Haurrak ez direnek ere gustora
irakur dezakete poesi liburu
hau, eta gustatuz gero, ez
ahaztu egile beraren *Begi-
niniaren poemak* (Erein)
gaztetoentzat eta
helduentzako poesi liburuak!

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA


Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2 *errikoia*

Lau euskaldun K2-ko hormetatik zintzilik



Hemen zein Pakistanen uda hurbiltzen ari da, Euskal Herrian hondartza gozatzeko garaia, Pakistanen K2-ra igotzeko tenore bakarra. Euskal mendizaleak munduko onenatarikoak omen dira, eta nola ez, euskal espedizio batek ez du K2-ra edo Ghogori-ra, (bertakoek hala deitzen diote), igotzeko aukera alperrik galduko. Inurrategi anaiak, Juanito Oiarzabal gasteiztarra eta Kike de Pablo bizkaitarra Karakorum mendikatetik ibiliko dira honez gero, gailurra egiteko aurreneko saiakera uztailaren lehen hamabostaldian burutuko bide dutela.

Ismael Diaz de Mendibil

ZERUKO MENDIRIK polit eta arrisku-tsuenetariko bat dugu K2 mendia (8.611 m.), ez da Everest bezain ospetsua, baina xarma berezi bat sortarazten du mendizaleengan. Bere aldapetan arriskuak nonahi daude, eta gailurra egiteko zailtasunak anitzak izaten dira. Horra hor datu bat, estatuko bi mendizalek bakarrik lortu dute munduko bigarren mendi altuenaren gailurrera iristea, noski, nafarrak biak. Erronka handia da, ikus dezakezuenetz.

Juanito Oiarzabal gasteiztarrari desafio hau aspaldidanik zebilkion buruan. Duela lau urte Everesteko hegomendebaldeko

GARNICA 

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73

horman Iñurrategi anaiekin topo egin, eta bere nahia azaldu zien. Iñurren erantzuna baietz borobila izan zen. Ordurako Iñurrategi anaiek bazekiten hiru urte beranduago K2rantz abiatuko zirela, baina berdin zitzairen. Gauzak horrela, 1993an Iñurrak K2ko gailurra ikutzen saiatu ziren, baina Txina aldetik igo ziren; hortik zailtasunak hirukoizten dira, eguraldia, uholdeak, bertara hurbiltzeko ez dago ibilgailurik, gameluak ez badira behintzat... Laburtuz, helburua ia ezinezkoa erdiesteko.

Oraingo honetan Iñurrategi anaiek eta Oiarzabalek ez dute hutsik egin nahi. Horretarako eguraldiari aurre egin beharko diote, hor eguraldia baita kakoa. Everesten, esaterako, zero urdina astebetetz ikus dezakezu; hemen, ordea, K2an hiru egunez gehienez. Horrexegatik, Juanito Oiarzabalek talde ona eratu nahi zuen; berak eta Iñurrek Everesteko punta ikutu dute, eta beraiekin batera doan Kike de Pa-blo ere goi mailako mendizalea da.

Iñurren gantxoak

Chogori edo K2rantz irten baino lehen, Oiarzabalekin mintzatu ginen. Juanito pozik zegoen, Iñurrekin zerbait berezia egin nahi zuen, eta helburua hurbil dagoe-la sentitzen zuen. Iñurra anaiez honela zioen, "Iñurrategi anaiek Everestera igo zirenean, oso garai berezia izan zen. Kontutan hartu behar duzu Martin Zabaleta igo zenetik, ez zela Everesten euskaldunik izan. Gainera, eurak dira Everestera oxigeno artifizialik gabe igo diren munduko mendizalerik gazteenak".

“Eguraldia dugu K2ra iristeko kakorik nagusia”

Prestakuntzaz ere aritu ginen. Horretan Oiarzabal eta Iñurrategi anaiek ez dute elkarren antzik. Argi dago mendizale batentzat prestakuntza onena mendia dela,

EUSKAL ESPEDIZIOA

ZERUTIK HURBILEKO LAU MENDIZALE



JUAN OIARZABAL • 37 URTE

Kangchungtse-(7.640 m.) 7.400 m. arte
 Cho-Oyu-1985(8.201 m.) Gailurra
 Hidden Peak-1987(8.068 m.) 6.800 m. arte
 Gasherbrum II-1987(8.035 m.) Gailurra
 Kangchenjunga-1988(8.598 m.) Iparraldeko hertza. 8.000 m. arte
 Makalu-1989(8.463 m.) Mendebaldeko hertza. 8.300 m. arte
 Everest-1990(8.848 m.) Hegomendebaldeko horma. 8.500 m. arte
 Kangchenjunga-1991(8.598 m.) Iparraldeko hertza. 8.300 m. arte
 Nanga Parbat-1992(8.125 m.) Gailurra
 Everest-1993(8.848 m.) Gailurra

ALBERTO IÑURRATEGI • 25 URTE

Pumori-1990(7.161 m.) Gailurra
 Makalu-1991(8.463 m.) Gailurra
 Everest-1992(8.848 m.) Gailurra. Oxigeno artifizialik gabe egindako estatuko lehenengo igoera
 K2-1993(8.611 m.) Iparraldeko hertza. 8.100 m. arte



FELIX IÑURRATEGI • 26 URTE

Pumori-1990(7.161 m.) Gailurra
 Makalu-1991(8.463 m.) Gailurra
 Everest-1992(8.848 m.) Gailurra. Oxigeno artifizialik gabe egindako estatuko lehenengo igoera
 K2-1993(8.611 m.) Iparraldeko hertza. 8.100 m. arte

ENRIQUE DE PABLO • 42 URTE

Everest-1980(8.848 m.) 8.000 m. arte.
 Lhotse Shar-1981(8.400 m.) 7.600 m. arte
 Nanga Parbat-1983(8.125 m.) Gailurra
 Kangchuntse-1984(7.678 m.) Gailurra
 Makalu-1984(8.463 m.) Gailurra
 Mazeno-1986(7.120 m.) 7.000 m. arte
 Gyanchung Kang-1986(7.952 m.) 7.000 m. arte
 Makalu-1989(8.463 m.) Mendebaldeko hertza. 8.300 m.
 Dhaulagiri-1992(8.167 m.) 6.600 m. arte



Mulumma
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta
 Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

deportivos



kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
 Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05 Fax: 22 07 19
 Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

“ Mendizaleak 8.000 metrotatik gora ez du ezertan pentsatzen ”

baina Inñurrek fisikoari gogor ekiten dioten bitartean, Juanitok mendia baino ez du egiten. Gasteiztarrak honela zioen: “gehiagotan joaten naiz mendira eurak baino, baina hori bai, nik ez dut inongo arduradun fisiko baten gomendiorik aintzat hartzen”. Harrigarria Juanitorena; areago, Oiarzabal ez da erretzaile porrokatua, baina Ducados bati ez dio muzinik egiten.

Mendizaleak 8.000 metrotatik gora ibiltzen direnean, ez dute ezertan pentsatzen; burutik darabilten ideia bakarra gailurra da. Horren argitarako Oiarzabalen hitzak, “han zure jainkoa mendia da. Miranda beti izaten dut gogoan, ziur naiz berak gauza berbera ziharduela buruan”. Hori entzun eta gero, bagenekien datorren galderaren erantzuna, “zarama?, tristea da, baina han mendizaleak gauza guztien gainetik bere bizitza maite behar du; ezin da, beraz, zarama hartzen ibili”.

Badakizue, datozen asteetan lau euskal mendizaleak zerua ikutu nahian ibiliko dira, ea daramaten telefono higikorretik berri onak datozkigun.



K2 istoria apur bat

K2 EDO CHOGORI, Xing Jiang aldekoek deitzen dioten bezala, Baltoro glaziararen buruan kokatua dagoen mendia da, Karakorum mendikatean, Himalaya mendebaldean. Munduko bigarren mendirik garaiena da, 8.611 m., eta bere gailurrak Txinako Xing Jiang eta Pakistango Kashmir lurraldeen arteko muga egiten du.

1.954.ean lehenbiziko aldiz italiarrekin igo zuten, mendi honek beti erakarri ditu mendizaleak, bere garaiera eta estetika dela medio: Haurren marrazkietan irudikatutako mendia dirudi, piramide zorrotza.

«Gure ahaleginean igoera ahalik eta era sinpleenean egin nahi dugu, oxigeno artifizialik gabe, alturako portadore gabe eta inondik ahalean bide interesgarria eginez»

Eta zer esan besterik hainbeste poz eta negar eragin dituen mendi honetaz?

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

H₂SO₄ Estraineko diska dendetan



H₂SO₄ izeneko taldeko mutilaz pozarren ditugu. Lortu dute. Hainbeste atetan jo ondoren, hainbeste ordu kontaezin entsaiatuz eta geldirik ezin egonik, lehendabiziko emaitza lortu dute. Argitaratu dute euren lehendabiziko diska.

Bidea ez da batere erreza izan, gogor jarraitu beharko dute aurrerantzean ere. Duela urte t'erdi sortu zen H₂SO₄ taldea. Horrez geroztik tinko eutsi dio bere helburu nagusiari: maila ona lortzeari, aukera guztiak agortzeari. Ideiak garbi eta lanerako gogoak zituzten. Egunero biltzen ziren etxe batean entsaiatu ahal izateko. Egunero, baita larunbata eta igandeetan ere. Lanetik entsaiora eta entsaioan lau ordu.

Horrenbeste lanaren ondorioak laster ikusi ahal izan zituzten: taldea batuz eta konpaktatuz zihuan; abestiak eragozpenik gabe sor-

tzen ziren. Orduan ekin zioten zuzenean jotzeari. Gasteiz, Araba eta Errioxako zenbait lekuk atak ireki zizkien, ikusentzulegoa gustora, eta beraiek, jakina, gogo handiturik.

Maketa bat egitea pentsatu zuten. Bilboko Estudios Norte-ra abiatu ziren eta lau egunetan bukatu zuten.

Orduantxe Cacereseko Walkiria disketearen jabeak agertu zen interesaturik. Hori ezustekoa! Maketa izan behar zena LP bilakatu

zen. Hala ere, KONTUZ! Caceresekoek ez dute ezer oparitzen. Lana erdibana egin dute: taldekoek ordaindu dute grabaketa eta disketeoek, berriz diska argitaratu eta salgai jarri. Promozioa taldearen eskutan dago eta prest ditugu edonon jotzeko prest.

Diska? Bai, «Reality Show» izendatu dute. Hamar kanta, guztiak arinak, oso arinak eta gogorak, izugarri gogorak. Ea Trash Core-ari heltzen dioten? Baliteke. Hor aurkituko dituzu testu beltzak, errealitate gordinarekin bat: «Fiebre española», «Punto y coma» edota duela hamar bat urte La Polla Records-ek grabatu zuen «Txus» ospetsua adibide argiak izan daitezke.

Azeleradorea guztiz sakatzeko moduko musika atsegin duzula? Hona zeure diskoa!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

LIBURUAK



EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Euskara Zerbitzua • Eusko Jaurlaritza

385 orrialde

GIROTZE barnetegietan erabiltzeko programaketa eredu batzuk eskeintzen ditu liburu honek. Barnetegi hauetan haurra euskaraz komunikatzeko ohitura sortzen saiatzen dira. Bigarren atalean, ostera, Euskal Girozte Barnetegien helburu orokorrak laburbildu dira. Alkiza, Plentzia, Gaztelu eta Elgoibarko barnetegiak banan-banako helburu, metodologia, programaketa eta ebaluazioari buruz eginiko hausnarketa.

Oso liburu espezialdua da, beraz, gaur ekarri dizueguna, baina irakaskuntzan aritzen zarenontzat guztiz interesgarria.

 **Ederki**

argazki estudioa


Olagibel, 64
Telefona: 27 50 85

 **ZITABERNA**
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

ELKARTASUN



Harreman elkartasuna da, talde honen beste ezaugarri bat. Elkar ezagutzetik abiatuta, egoera eta analisisen trukaketa datza solidaritate hori, Herriaren borroka errespetatuz eta koordinazioa arau bihurtuz. Orduan, Ipar-Hego dikotomia zaharra apurtu eta herrien autodeterminazioaren bila hasiko dira.

Beraz, Askapenak antolatzen dituen brigaden asmoa norberak besteenganako konpromezua hartzea da.

Aurtengo brigadek Guatemala, El Salvador, Mexiko, Ecuador, Cuba, Palestina eta Irlandarako bidea hartuko dute, uztaila, abuztua eta irailean, nahiz eta batzutan urte osoan izan Guatemala eta El Salvadorren kasuan bezala.

Prezioa, berriz, lekuaren arabera izango da; garestiena Ecuador izango da bidai txartelak 160.000 pezeta balio duelarik, eta merkeena Irlanda, 60.000 pezeta. Bidaia hegazkinez izango da Bilbo abiapuntua izanik.

Kopuruari dagokionez, brigada bakoitzean 12tik 16 pertsona bitartean joango dira, bakoitzak berea ordainduz, inolako laguntza barik.

Askapenako bozeramaileak adierazi digenez, "han zaudenean harremanak sortzen dituzu, harreman pertsonalak eta politikoak ere. Hona etorrita, berriz, oso zaila izaten da horiei eustea. Hala ere hango egoeraz arduratzen zara kanpainetan esku hartuz... eta benetako kontzientzia hartzen duzu herrialde horietako arazoez.

Ohi duten bezala, aurtien ere Askapenak eta Komite Internazionalistek hainbat herrialde gatazkatsutara brigadak antolatu dituzte: Guatemala, Salvadorrera eta Cubara, kasu.

Lekuan lekuko jendearekin harreman zuzena izatea eta beren elkartasuna adieraztea da brigaden helburua, herrialdeotako egoera hurbilgotik ezagutzeko ezezik.



ASKAPENAK antolatzen dituen brigadak hamar urteetako historia dute Euskal Herrian. Iraultza sandinistarekin batera hasi zirenetik gaurdaino dexente ugalduta, bai jende aldetik baita jomuga izan diren herrien aldetik ere. Orduko lan brigada haiek atzean utzi eta gaur egungo harremanak oso anitzak izan ohi dira. Brigadek izaera soziopolitikoak dute borrokan ari diren herriengana hurbiltzea beren xede nagusia delarik. Ildo horretatik ulertzen da zergatik duen hain garrantzi handia herriekin eta gainerako eradundekin harremanak izateak.

Nahiz eta modua aldatu, oraingo helburuak lehengo berak dira; "Gure herrian elkartasun eta kontzientzia internazionalista haunditzea dugu oinarritzeko xede eta baita hainbat herritako borrokari buruz botereak sortzen duen desinformazioa etetea ere".



Susana



**JATETXEA
ERRETEGIA**

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Guk bi taldeekin hitzegin dugu, ondoren aipatuko dizuegu solasaldiotan jasotakoa.

Komite Internazionalisten aburuz, "hango jendearekiko harremana sortu eta garatzea da inportanteena, beraien arazoak ezagutu eta ondoren gure herrialdean zabaltzeko".

Bestalde, Askapenak esan diguna hauxe da: "Askapena ez da organismo humanitarioa, euskal erakundea baizik. Gure ekimena Euskal Herri-tik mundura zabaldu nahi dugu, beti gure herrialdea erdigunea izanik".



Calleja & Itziar Mtz de Santos

KOMITE KI INTERNAZIONALISTAK

AURTEN Komite Internazionalistek El Salvador, Guatemala, Cuba, Nicaragua, Palestina, Peru, Brasil eta Ecuadorrerako brigadak antolatu dituzte. Hango egoera ezagutzea eta gero eta jende gehiago lan internazionalistetan sartzea da beren helburua ezerean aurretik.

Herrialde bakoitzaren egoera oso desberdina denez, han egingo diren ekintzak ere anitzak izango dira: batzutan lan fisikoak egingo dira; beste batzutan, aldiz, lekuan lekuko egoera ezagutzea eta bertako mugimendu politiko eta sozialekin harremanak izateari ekingo zaio bereziki.

Cubara abiatuko den brigadak Santa Clara dagoen Sangua la Grande eskola konponduko du. Aldi berean, hainbat erakunde sozial eta politikorekin egoteko aukera izango dute bertan. Perura joango den brigadaren antolaketa, berriz, desberdina da. Han brigadista bakoitza bizi izango da bere lanbidea duen familia batekin, beraien lan baldintzak ezagutzeko eta ahal den heinean lan horretan laguntzeko.

Brigadak uztailan eta abuztuan joango dira. Hala ere, Guatemala eta El Salvadorreko egoera gatazkatsua kontutan izanik, Komite Internazionalistetak brigadistek urte osoa emango dute bertan. Horregatik, "horiek dira brigadarik arriskutsuenak. Adibidez, Guatemalako ejerzitoaren errepresioa oso gogorra da, eta gure laguntza ekonomikoa eta elkartasun politikoa adierazten saiatuko gara", aipatu digu Komite Internazionalistetak eldkunak.

Brasilgo erakundeekin hitzaldiak eta bilerak antolatzera joango da harako brigada



bertako egoera politiko eta soziala gertutik ikusteko. Brigada hori sindikalista izango da, Euskal Herriko erakunde sindikalak eta bertakoen arteko harremana pizteko.

Beraz, lana herrialde bakoitzaren ezaugarrien eta egoeraren arabera izango da. Horrela brigadak antolatzeko helburuak ere aldatuko dira.

Brigadan prezioa 150.000 eta 95.000 pezeta bitartekoa izango da, hegazkinaren prezioaren arabera. Gehienetan brigadistak komunidadeetan edo bertako familien etxeetan ostatuko dira, baina Palestinan hoteletan egongo direnez prezioa igoko da.

Bai Askapenak, bai Komite Internazionalistek herrialde horietako egoerari buruz informatzeko eta brigadistek elkar ezagutzeko hitzaldiak antolatzen dituzte inora abiatu aurretik.



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005
GASTEIZ

**UDA
IKASTAROAK**

Uztailetik Irailera
Gasteizen eta Barnetegiak
Saran eta Bakaikuan

D E N B O R A P A S A

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	M	A	I	A	T	Z	A		E	H
2			U	K		A	R	A	Z	I
3				T			H			
4	D		A	A						
5			N		B	A				K
6			D		R	R			E	T
7	A	D	O	S		R		O	T	A
8			N		R	A			A	I
9	A		I		O	N		A	K	
10	T	E			N	O		Z		O

ZEHARRETARA

1. Pasa den hilabetea. Euskal Herria. 2. Ukanarazi, izanarazi. 3. Lehen pertsona. Tarragonako autoetan. Uharreak. 4. Bostehun. Alkoholiko anonimo. (Ald.) Tarte, bitarte. 5. Bertso amatera. Barazkiak. 6. Arabako ibai bat. Interjekzio. 7. Konforme. Roentgen. Pagatuta aparkatzeko eremu. 8. Euritako jantzi. Amnesty International. 9. Lehepa. Irudiak. 10. Infusio mota. Noizpait. Oxigenoa.

GOITIK BEHERA

1. Arabako dorre famatu bat. Kanpo. 2. Erne. Dagoeneko. Ekialde. 3. Alderdi politiko bat. Mutil izena. 4. Agiri. Guztiz, erabat. 5. Atziki. Bromoa. Edari alkoholodun. 6. (Ald.) Joan den urtean. hegazti harrapari bat. 7. Gizonezko batentzako, bere gurasoen alaba bakoitza. Atziki. 8. Beraz. Oxigenoa. Lehena eta azkena. 9. Ezarpenak. 10. Zuka ez. Eten. Oxigenoa.

LETRA ERORI

GOIKO lerroetan, Fernando Pessoa idatzi zuen poema zati bat zegoen. Zoritxarrez, beheko lerroetara erori (zutabez aldatu gabe) eta desordena egin zaigu. Anima zaitetz, erreza da eta.

	I	A	I	O	T	Z	E	N		G	A	R	E	N
	B	E	Z	A	L	A	X	E		B	E	Z	I	
	G	A	R	A		K	O	N	T	U	R	A	T	U
	E	T	A		N	A	H	I		G	A	R	E	
	G	A	T	Z		L	A	O		G	A	E	X	
	X	E	X	O	N	K	H	N		G	R	B	T	U
	X	B	E	A		Z	E	N		X	B	A	R	E
	X	J	R	A		T	A	X	E	T	U	A	Z	T

ERANTZUNAK

GABE.
KONTURATU ETA NAHI
BEZALAXE BIZI GARA,
JAIOTZEN GAREN
ERORIAK
LETRA

	O	Z	I	O	N	I	T	E		
10	K	O	N	O	K	I	K	A	V	
9	I	A	K	R	A	K	O	N	A	
8	I	A	O	R	A	S	O	D	A	
7	T	A	D	O	R	R	A	Z	A	
6	E	T	A		N	A	H	I		
5		B	A	B	A	K		O	I	
4		D	A	V	A		E	T	R	
3		N	I	L	A	K				
2		E	D	U	K	I	A	R	Z	
1		M	A	I	A	T	Z	A	E	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

ANBOTO


TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

Cervecería Alemana

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ



UDAZKENEAN MINTZATUKO GARA

BARNETEGIAK

Lesaka, Leitza, Arantza, Etxalar, Doneztebe • 2, 3 eta 4 aste • Uztaila, abuztua eta iraila


IKASTAROAK

Uztaila eta iraila. 2 eta 5 ordu. EGA, mintza eta sakontze. Uztailean 3 ordu gaztetxoentzat

GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22)
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)

PINTO: Pintoreria 74 (28 97 80)

MATRIKULAZIOA: ekainaren 6tik aurrera



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ



Arabako Ikastolen arteko

MAIATZAREN 14EAN Zalburuako zelaietara hurbildu zen orok Arabako ikastolen arteko XIV. krossa ikusi ahal izan zuen. Goiz osoan zehar ibili ziren lasterka ikastoletako neska-mutilak, ahalegin guztion helburua euskararen erabilera sustatzea zelarik. Arantzabela ikastolaren eskutik etorri zen antolaketa. Partaidetzari dagokionez, 400 bat ikaslek esku hartu zuen lasterketan honako ikastola hauetako ordezkari gisa: Odon Apraiz, Olabide, Ikas Bidea, Agurain, Abendaño, Adurtza, Alde Zaharra, Umandi eta Arantzabela. Krossaren luzera korrikalarien sexu eta adinaren arabera zen. Esaterako, ikasle-

rik koskortuenetan, 14 urtekoetan alegia, neskek 800 metroko saioa gaititu zuten bitartean, adin bereko mutilek 1.200 metro egin behar izan zuten arineketan. Ikastoletako tarteko adinekoei bezala, txikienei (4 urteko hurrei) ere parte hartzeko aukera eskeini zitzairen. Primeran aprobetxatu zuten alajaina! Horiek 80 metroko jardun laburrari egin behar izan zioten aurre. Ikastoletako pupitreen laztasuna eta garraztasuna ahaztuxe dituztenentzako ere lekuri izan zen bertan, neska-mutilen ondoren, beren aita-amak eta maisu-andereñoak aritu baitziren lasterka beren seme-alaben zein ikasleen mirespenerako.

XXII. III udako euskal unibertsitatea



ARTEA ETA KOMUNIKAZIOA

ANTZERKILARITZA (Uzt. 18/30) • ARTEA (Uzt. 18/22) • MUSIKA (Uzt. 18/30)

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

EKONOMIA (Uzt. 25/30) • EUSKO KULTUR GAIK (Uzt. 18/30) • FILOSOFIA (Uzt. 18/22) • HISTORIA (Uzt. 18/30) • KAZETARITZA (Uzt. 18/30) • PEDAGOGIA (Uzt. 18/22) • PSIKOLOGIA (Uzt. 18/30) • SOZIOLINGUISTIKA (Uzt. 25/30) • SOZIOLOGIA (Uzt. 25/30) • ZUZENBIDEA (Uzt. 25/30)

HIZKUNTZALARITZA

GLOTODIDAKTIKA I (Uzt. 18/30) • GLOTODIDAKTIKA II (Uzt. 25/30) • IKASKETA KLASIKOAK (Uzt. 25/30) • ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETARITZA (Uzt. 25/30) • LINGUISTIKA (Uzt. 18/22) • LITERATURA (Uzt. 25/30)


NATUR ZIENTZIAK

NATUR ZIENTZIAK (Uzt. 18/30) • OSASUNA (Uzt. 18/30)

ZIENTZIA ETA TEKNIKA

FISIKA (Uzt. 25/30) • INFORMATIKA (Uzt. 18/22) • KIMIKA (Uzt. 18/30) • LANEKO EUSKARA (Uzt. 18/30) • MATEMATIKA (Uzt. 18/22)

Argibideak: UEU General Concha 25, 6 BILBO Tel 94-4217145



HAUR KANTU TXAPELKETA

Ekainak 11
Oiongo Zinema-tokian
arratsaldeko 4etan

Dulantzi, Oion, Gasteiz (Toki-Eder eta Olabide)

Labarka eta Aguraingo

313 umek hartuko dute parte.

Tartean kale animazioa ere izango da



XIV krossa

Kross hau dugu Arabako ikastola guztiak batzen dituen ekitaldi bakarra. Hortik datorkio, hain zuzen, egun duen garrantzia. Nor izan zen irabazlea eta nor galtzailea ez zion inori ajola, kirolez eta alaitasunez beteriko goiz hartako neska-mutilek ederki asko erakutsi ziguten bezala. Gasteizko euskalgintzari eta ikastolen arteko harremanen egoerari oso onuragarri zaizkio gisa honetako ekintzak. Bihoazkie, bada, hemendik gure zorionik beroenak antolatzailerik kirola eta euskara hain ondo uztartzeagatik honelako ekintzen bidez. Eutsi goiari!

ZUIA-ARKABUSTAITZeko GAUESKOLAREN XV. URTEURRENA

Uztailak 3

Artisauak
Argazki erakusketa
Txalapartariak
Dantza
Bertsolariak
Jon Enbeita • Ajuria
Herri Bazkaria
DANTZALDIA

*anima zaiter
gonbidatuta zaude*

SUKALDE TXOKOTIK



Oilasko errea limoiarekin

Osagaiak:

- Bi oilasko (1.100na gramotakoak)
- Bi limoi
- Urdai zati bat
- 2 goilarakada irin
- 10 goilarakada ardo txuri
- 10 goilarakada ur
- 6 goilarakada gantz urtu

Nola egin:

Bi oilaskoak barrutik zein kanpotik gatzez atondu eta beraien barnean limoi txiki bana ezarri. Buztinezko ontzi bat sutan jarri eta bota hara 6 goilarakada gantz. Ontzia bero denean sartu bertan oilaskoak eta handik 3 minututara iruntziratu. Gero, urdai xerra mehe batzuk oilaskoen gainean paratu.

Labe bero-beroa sartu buztinezko ontzia. Bost minuturen buruan, oiloei bota gainetik beraien saltsa

EUSKAL SUKALDARITZAN haragiak berebiziko garrantzia izan du betidanik. Gehiegizkoa, batzuen irudiko. Guk eztabaida horretan sartzeko asmorik ez dugu. Horren orde, edozein oilaskozale gogobetetzeko moduko errezeta aurkeztuko dizuegu jarraian. Oilokumea milaka eratarata atondu ahal da eta primerako platerak prestatu; hona hemen bat On egin!

goilara batez. Handik 10 minututara, iruntziratu oilaskoak. Aldizka, beraien saltsa erantsi gainetik. Berrogei bat minuturen ondoren, pausatu oilaskoak buztinezko beste ontzi batean. Lehengo buztinezko ontzia sutan ezarri berriro; saltsa oso bero denean katilu batera bota ia koipe guztia, lau bat goilarakada salbu. Gaineratu katilukoari 2 goilarakada irin eta irabiatu koipearekin batera. Segidan, 10 goilarakada ardo txuri eta beste hainbeste goilarakada ur aurrekoari atxeki. Aldi berean, tresna batez nahasi. Horrek guztiak irakin behar du hiruzpalau minutuz.

Buztinezko ontzi bat sutan jarri. Bota horra lehen oilaskoak erretzeko erabili diren bi goilarakada gantz. Bitartean, oilasko bakoitzetik bina hegal eta bina izter erauzi. Ontzikoa bero denean, oilasko puskak paratu bertan. Azkenik, katiluko saltsa bota horren gainetik. Une horretan mahairatzeko gertu izango da. Goxoagoa da patata frijiturez edota letxuga entsaladaz lagundurik jatea.



Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



HAU DUK MISTE- RIOA...



EZ DAKIT ZER GERTATZEN DEN, BAINO GAUR DENA ARRERO XAMAR IKUSTEN DUT...



ETA NIRI?... ZER GERTATZEN ZAIT?...?



GALDER HAUETI ERANTZUNA AURKITU BE...



E, TXO!! ZER ARI ZARA EGITEN?



ZURE OHIKO MARRAZKILARIA SEME BAT EDUKI DU ETA ZU MARRAZTEA NIRI ESKATU DIT...



BA NIRI EZ ZAIT ATSEGITEN ALDAKETA HAU; BETIKO MARRAZKILARIA EZ BALDIN BADIT MARRAZTEN, NAHIAGO DUT EZ AZALTEA... ZER PENSATUKO DUTE NERE JARRITZINLEEK...



ONGI, TXEROKI!
POPATIK ARTZERRA...!



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



AYUNTAMIENTO
DE
**VITORIA
GASTEIZ**
K O
U D A

Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioreen bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrek egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.